# HitzEkin A1
# Autoikaskuntza



## HELBURUAK

Sekuentzia didaktiko hau KORRIKA hurbil dugula egiteko pentsatuta dago, eta helburu nagusia du ikasleak KORRIKAn parte hartzen animatzea (norberaren herritik pasatzen denean korrika eginez, KORRIKA laguntzaile bilakatuz...). Horrez gain, mailari dagozkion eduki batzuk ere landuko ditugu, jakina.

## OHAR GARRANTZITSUA

Ikasmaterial honekin batera, B1 mailatik aurrera, "KORRIKA, historikoa!" joko digitala eskaintzen da. Joko hori Euskal Herri mailan egitea proposatzen da, eta sariak egongo dira.

Jokoan erabiltzen diren bideoak, galderak eta erantzunak zailak dira A1 eta A2 mailako ikasleentzat; edonola ere, horiek lehiaketan parte hartu nahi izanez gero, honako bide hau proposatzen dizugu:

- Joko digitala beharrean, erabil ezazu ikus-entzunezkoen zein paperaren bidez jokatzeko aukera.
- Bideo bakoitza ikusi ondoren, har ezazu tartetxo bat ikusitakoaz mintzatzeko.
- Galderak eta erantzuteko aukerak pantailan daudela, eten ezazu ikustaldia, eta lagundu ikasleei pantailan irakurtzen dena ulertzen.

Horrela jokatzeko euskarri guztiak (jokatzeko arauak, ikus-entzunezkoak...) B1 mailatik gorako unitateetan aurkituko dituzu.

Jarduera honetako ariketak online bideratu nahi badituzu, egin klik lotura honetan: HitzEkin A1

## PROZEDURA

### 1. Ezagut dezagun KORRIKA

Jarduera honetan, KORRIKAri buruzko informazio interesgarria gogoraraziko diegu ikasleei: historia apur bat, aurtengo KORRIKAri buruzko datuak... Horrekin batera, KORRIKA laguntzaile izaten animatuko ditugu.

— Helarazi ondoko dokumentuak ikasleari:

**a.** Jarduerak egiteko orrialdeak (3.-11. or.).

**b.** "KORRIKAn aditua zara? GALDERAK" eta "KORRIKAn aditua zara? ERANTZUNAK" ikus-entzunezkoak.

### 2. "KORRIKA, historikoa!" jokoa

Jolas digital horren bitartez, KORRIKAren inguruan sakondu nahi dugu, modu ludikoan, mugikorrak edo ordenagailu eramangarriak erabiliz. Jokoa bakarka edo mintza-saioan egingo dugun arren, puntuazioaren jarraipena euskaltegi eta Euskal Herri mailan egingo da, eta sariak ere egongo dira.

— Egoki iritziz gero, proposatu ikasleari "KORRIKA, historikoa!" jokoan parte hartzeko. Jokoa bideratzeko euskarri guztiak (jokatzeko arauak, ikus-entzunezkoak...) B1 mailatik gorako unitateetan aurkituko dituzu.

## KORRIKAn aditua zara? — Erantzunak jasotzeko fitxa

**Irakurri bideoaren galderak, eta aukeratu erantzun zuzenak.**
Lee las preguntas del video y escoge las respuestas correctas.
*Lisez les questions de la vidéo et choisissez les bonnes réponses.*

Izena: ____________________________________

### 1. GALDERA
A..... ☐ B..... ☐
C..... ☐ D..... ☐

### 2. GALDERA
A..... ☐ B..... ☐
C..... ☐ D..... ☐

### 3. GALDERA
A..... ☐ B..... ☐
C..... ☐ D..... ☐

### 4. GALDERA
Egia ☐ Gezurra ☐

### 5. GALDERA
A..... ☐ B..... ☐
C..... ☐ D..... ☐

### 6. GALDERA
Egia ☐ Gezurra ☐

### 7. GALDERA
Egia ☐ Gezurra ☐

### 8. GALDERA
Egia ☐ Gezurra ☐

### 9. GALDERA
Egia ☐ Gezurra ☐

### 10. GALDERA
A..... ☐ B..... ☐
C..... ☐ D..... ☐

**11. GALDERA**

A..... ☐ B..... ☐
C..... ☐ D..... ☐

**12. GALDERA**

A..... ☐ B..... ☐
C..... ☐ D..... ☐

**13. GALDERA**

A..... ☐ B..... ☐
C..... ☐ D..... ☐

**14. GALDERA**

A..... ☐ B..... ☐
C..... ☐ D..... ☐

**15. GALDERA**

A..... ☐ B..... ☐
C..... ☐ D..... ☐

**16. GALDERA**

A..... ☐ B..... ☐
C..... ☐ D..... ☐

**17. GALDERA**

A..... ☐ B..... ☐
C..... ☐ D..... ☐

**18. GALDERA**

A..... ☐ B..... ☐
C..... ☐ D..... ☐

**19. GALDERA**

A..... ☐ B..... ☐
C..... ☐ D..... ☐

**20. GALDERA**

A..... ☐ B..... ☐
C..... ☐ D..... ☐

## KORRIKAren historia 8 argazkitan

### A.

**Osatu testua, falta diren datak idatzita.**
Completa el texto escribiendo las fechas que faltan.
*Lis le texte et associe les mots en gras avec leur sens.*



______________________________ (1)

Gaur lehenengo KORRIKA amaitu da, Bilbon. ***Lasterketa***[1] Oñatitik atera zen, ______________________ (2).



______________________________ (3)

Gaur bigarren KORRIKA hasi da, Iruñean. Nafarroako gobernadore zibilak lasterketa Nafarroan ibiltzea ***debekatu***[2] du, baina ***epaileek***[3] ***bertan behera utzi***[4] dute ***erabakia***[5].


llama a sus afiliados y simpatizantes a obrar en igual forma
El PNV no apoya la "Korrika-2" organizada por AEK
El Euzkadi Buru Batzar del Partido Nacionalista Vasco, en un comunicado en euskera y castellano hecho público ayer, ha manifestado que no apoyará en absoluto la "Korrika-2" organizada por AEK al mismo tiempo que hace un llamamiento a sus afiliados y simpatizantes para que obren de igual forma. El texto integro del comunicado es el siguiente:
... blico sin admitir las garantías mínimas como contrata...
● "Sus fines reales un enfrentamie... con los pla... del Gobier... vasco".
● "La

______________________________ (4)

Bigarren KORRIKA Iruñera iritsi da. Partidu politiko batzuek KORRIKAri boikot egitea eskatu dute, baina jende askok hartu du parte lasterketan.



______________________________ (5)

Bihar, ______________________ (6), 13. KORRIKA Iruñera iritsiko da. Nafarroako Gobernuak lasterketa Iruñean sartzea debekatu nahi izan du, baina, azkenean, ***atzera egin***[6] du.

| (1) | (3) | (5) |
|---|---|---|
| 1980ko abenduaren 9a | 1982ren maiatzaren 22a | 2003ren apirilaren 12a |
| 1980ren abenduko 9a | 1982ren maiatzeko 22a | 2003ko apirilaren 12a |
| 1980ko abenduko 9a | 1982ko maiatzaren 22a | 2003ren apirileko 12a |
| **(2)** | **(4)** | **(6)** |
| urriko 30an | 1982ko maiatzaren 31 | apirileko 13n |
| urriren 30an | 1982ko maiatzaren 31a | apirilaren 13an |
| urriaren 30ean | 1982ko maiatzeko 31a | apirilaren 13n |

## B.

**IDATZI DATAK ZENBAKI ETA HITZAK ERABILIZ, ADIBIDEAN BEZALA.**
Escribe las fechas utilizando números y palabras, como en el ejemplo.
*Écrivez les dates en utilisant des chiffres et des mots, comme dans l'exemple.*




(2007/03/23) ***2007ko martxoaren 23a*** (7)

15. KORRIKA atzo atera zen, Karrantzatik, eta gaur Arabako Errioxan dago. Egun hauetan elur asko egin du, eta Urizaharreko ***mendatea***[7] itxita egon da; baina korrikalariek mendatea ***zeharkatu***[8] dute, elur artean korrika.



(2007/04/02) ______________________________ (8)

Gaur gauean Ebro ibaiak ***gainez egin***[9] du Castejón ***aldean***[10], KORRIKAren bidean; baina korrikalariek lortu dute ibaia alde batetik bestera pasatzea.


Korrika 2022ra atzeratu dute, pandemiaren ondorioz

AEK-k bi urtean behin egiten duen euskararen aldeko lasterketaren 22. edizioa 2021ean zen egitekoa, baina urtebete atzeratu dute koronabirusaren ondorioz.



(2021/03/18) ______________________________ (9)

Gaur 22. KORRIKA hasi behar zen, baina COVID-19ak AEKren planak aldatu ditu. Dena dela, KORRIKA gogoratzeko ***ekitaldiak***[11] egin dira, euskaltegi askotan.




(2022/03/01) ______________________________ (10)

KORRIKA urtebetez atzeratu behar izan da, COVID 19a dela eta, baina laster, (03/31) ____________________ (11), 22. edizioa hasiko da, Amurrion, eta (4/10) ______________________ (12) Donostiara iritsiko da. Lasterketan milaka eta milaka ***euskaltzalek***[12] hartuko dute parte. Horietako bat izango zara, ezta?

1. **Lasterketa**: carrera; *course*
2. **Debekatu**: prohibir; *interdire*
3. **Epaile**: juez, -a; *juge*
4. **Bertan behera utzi**: anular; *renoncer*
5. **Erabaki**: decisión; *décision*
6. **Atzera egin**: retractarse; *se rétracter*
7. **Mendate**: puerto de montaña; *port de montagne*
8. **Zeharkatu**: atravesar; *traverser*
9. **Gainez egin**: desbordarse; *déborder*
10. **Alde**: zona; *zone*
11. **Ekitaldi**: acto; *acte*
12. **Euskaltzale**: vascófilo, -a; *bascophile*

## EZAGUTU KORRIKA

**IRAKURRI TESTUA ETA LOTU LETRA LODIZ IDATZITAKO HITZAK ESANAHIEKIN.**
Lee el texto y une las palabras en negrita con sus significados.
*Lis le texte et associe les mots en gras avec leur sens.*




### KORRIKAREN *HELBURUAK*[1]

KORRIKAk bi helburu ditu: lehenengoa da euskara ***bultzatzea***[2] eta gure hizkuntza kalera ateratzea; bigarrena, ***ekarpen***[3] ekonomikoa ***lortzea***[4] euskaltegiei laguntzeko. Horretarako, hiru bide daude: kilometroen ***salmenta***[5], materialen salmenta eta KORRIKA laguntzailea.



### KORRIKAREN *IBILBIDEA*[6]

KORRIKA bakoitzean 2.500 kilometro ***inguru***[7] egiten dira. Horretarako, korrikalariak gau eta egun ibiltzen dira korrika, gelditu gabe. ***Aurtengo***[8] edizioa hogeita bigarrena izango da, eta Amurriotik Donostiara joango da.



### MEZUA ETA LEKUKOA[9]

KORRIKAn, korrikalariek ***zurezko***[10] lekuko bat eskuz esku pasatzen dute. Kilometro ***bakoitzean***[11], pertsona edo ***erakunde***[12] batek eramaten du lekukoa. Lehenengo lekukoa Remigio Mendiburuk egin zuen. Lekuko hori San Telmo Museoan dago, 1988tik; azken edizioetan, Juan Gorritiren kopia erabiltzen da.

Lekukoaren barruan mezu sekretu bat gordetzen da. Mezu hori KORRIKAren amaieran irakurtzen da.




### KORRIKAREN *LELOA*[13]

KORRIKA bakoitzak bere leloa izaten du, eta aurtengoa “HitzEkin” izango da.



### KORRIKAREN KANTA

22. KORRIKAren kantak ere “HitzEkin” du izena. Kantaren letra Sustrai Colina bertsolariak egin du; musika, Nerea Urbizuk; eta abeslariak Nerea Urbizu, Anari eta Ane García dira.




**KORRIKAren omenduak[14]**

KORRIKA guztietan pertsona edo erakunde bat, omentzen da, euskararen alde egin duen lana eskertzeko. Aurtengo KORRIKAn, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek ***jasoko***[15] dute KORRIKAren omenaldia.




**KORRIKAren ahizpak**

KORRIKAk fama handia hartu du Euskal Herrian, eta Euskal Herritik kanpo ere bai. Horrela jaio dira KORRIKAren ahizpak: ***antzeko***[16] ekimenak hizkuntza ***gutxitu***[17] batzuen alde. Lehenengo ahizpa *Correllengua* izan zen, Katalan Herrietan (1993); bigarrena, *Correlingua*, Galizian jaio zen, galizieraren alde (2000).



***Milurteko***[18] honetan, beste ahizpa asko jaio zaizkio KORRIKAri, mundu osoan: *Ar Redadeg*, Bretainian (2008); *Rith*, Irlandan (2010); *Ras yr Iaith*, Galesen (2014); *Lefkantun*, Txileko Araucanían (2016); *Le Passem*, Okzitanian (2018); *Sprochrenner*, Alsazian (2020). KORRIKAren ahizpa gazteena Korsikan jaio zen, 2021ean: *Currilingua*.

1. **Helburu**: objetivo; *objectif*
2. **Bultzatu**: ____________________
3. **Ekarpen**: ____________________
4. **Lortu**: ____________________
5. **Salmenta**: ____________________
6. **Ibilbide**: ____________________
7. **Inguru**: ____________________
8. **Aurtengo**: ____________________
9. **Lekuko**: ____________________
10. **Zurezko**: ____________________
11. **Bakoitz**: ____________________
12. **Erakunde**: ____________________
13. **Lelo**: ____________________
14. **Omendu**: ____________________
15. **Jaso**: ____________________
16. **Antzeko**: ____________________
17. **Gutxitu** : ____________________
18. **Milurteko**: ____________________

a) aportación; *apport*
b) cada; *chaque, chacun, -e*
c) conseguir; *réussir*
d) de este año; *cette année*
e) de madera; *en bois*
f) fomentar; *promouvir*
g) homenajear; *rendre hommage*
h) lema; slogan
i) más o menos; *plus o moins*
j) milenio; *millénaire*
k) minorizado, -a; *minorise, -sée*
l) **objetivo; *objectif***
m) organización; *organisation*
n) parecido, -a; *pareil, -eille*
ñ) recibir; *recevoir*
o) recorrido; *itinéraire*
p) testigo; *témoin*
q) venta; *vente*

## "KORRIKA LAGUNTZAILEAK NIRE BIZITZA ALDATU DU"

**AZPIMARRA ITZAZU LETRA LODIZ IDATZITAKO HITZAK DEKLINATZEKO FORMA EGOKIAK.**
Subraya las formas correctas para declinar las palabras escritas en negrita.
*Soulignez les bonnes façons de décliner les mots écrits en gras.*



**Iñazio urtarrilaren 10ean, KORRIKA laguntzaile egin aurretik.**

"***Gizajo***[1] bat naiz. Ez zait ezer ondo ateratzen. **Lanpostu guztiak/Lanpostuak guztia/Lanpostu guztiek** (1) galtzen ditut. Plan bat egin nahi dudan bakoitzean, **laguna/lagunak/lagunek** (2) zerbait ***garrantzitsuago***[2] izaten dute beti: ezkontza bat, ***hileta***[3] bat, ***lapikoa***[4] sutan... Maskotekin ere ez dut **zortea/zorterik/zorte** (3) izaten: Pituk, nire katuak, ***leihotik/leihoatik/leihorik*** (4) ihes egin du, zazpigarren ***solairuan***[5] bizi garela kontuan hartu gabe; eta arraintxoa ito egin zait. Semaforo ***guztiak/guztia/guztiek*** (5) gorri aurkitzen ditut. Kaleko banku batean esertzen naizenean, beti egoten da margotu ***berri***[6]. ***Zorigaiztokoa***[7] naiz!"



**Iñazio martxoaren 1ean, KORRIKA laguntzaile egin ondoren.**

"Bizitza zoragarria da. Dena ateratzen zait ondo: l**ana/lanek/lanak** (6) edonon agertzen zaizkit, ***perretxikoa***[8]**/perretxikoak/perretxikoek** (7) bezala; lagunak ezin dira ni gabe bizi; telefonoz gestio bat egin behar dudan bakoitzean, beti izaten da langile ***gizatiar***[9] bat libre, nirekin hitz egiteko. Zoriontsua naiz!"

Eta **zuek/zu/zuk** (8) nor izan nahi duzu, urtarrileko Iñazio ala **martxoko/martxokoa/martxokoak** (9)? Ez izan kamikazea, ez arriskatu eta egin zaitez KORRIKA laguntzaile. **Paradisua/Paradisuak/Paradisua** (10) zure ***zain***[10] dago; eta aurkitzen ez baduzu ere, kontuan hartu KORRIKA aurrera ateratzen laguntzen ari zarela. Ez da gutxi, ezta?




## Egin zaitez laguntzaile

**Korrika laguntzailea izatearen *abantailak*[11]:**

- Astero, ***zozketak***[12] egingo ditugu LAGUNTZAILEEN artean... **300 sari baino gehiago...**
- Oro har, **KORRIKAren ekimenetan *lehentasuna*[13] edo deskontuak** izango dituzu.
- Deskontuak AEK-ko ikastaroetan ere. AIZU! aldizkariko ***harpidetzan***[14]...
- Eta, ***aldiro-aldiro***[15], gure berri jasoko duzu **KORRIKA laguntzaileentzako buletinaren** bidez.

**... eta garrantzitsuena: KORRIKAren parte zara, zure laguntzaz egingo dugulako aurrera.**

**Eskerrik asko!**

1. **Gizajo**: infeliz (hombre); *pauvre (homme)*
2. **Garrantzitsu**: importante; *important, -e*
3. **Hileta**: funeral; *funérailles*
4. **Lapiko**: puchero; *marmite*
5. **Solairu**: piso; *étage*
6. **Berri**: recien; *récemment*
7. **Zorigaiztoko**: desgraciado, -a; *infortuné, -e*
8. **Perretxiko**: seta; (gros) *champignon*
9. **Gizatiar**: humano, -a; *humain, -e*
10. **Zain** (egon): esperando; *attendant*
11. **Abantaila**: ventaja; *avantage*
12. **Zozketa**: sorteo; *tirage au sort*
13. **Lehentasun**: prioridad; *priorité*
14. **Harpidetza**: suscripción; *souscription*
15. **Aldiro**: periodicamente; *périodiquement*




# 22. KORRIKAren ibilbidea

# ERANTZUNAK

## KORRIKAren historia 8 argazkitan

**A**

1. 1980ko abenduaren 9a; 2.  urriaren 30ean; 3. 1982ko maiatzaren 22a; 4. 1982ko maiatzaren 31a: 5. 2003ren apirileko 12a; 6. apirilaren 13an.

**B.**

7. 2007ko martxoaren 23a; 8. 2007ko apirilaren 2a; 9. 2021eko martxoaren 18a; 10. 2022eko martxoaren 1a; 11. martxoaren 31n; 12. apirilaren 10ean.

## Ezagutu KORRIKA

1. **Helburu**: objetivo; *objectif*
2. **Bultzatu**: fomentar; *promouvir*
3. **Ekarpen**: aportación; *apport*
4. **Lortu**: conseguir; *réussir*
5. **Salmenta**: venta; *vente*
6. **Ibilbide**: recorrido; *itinéraire*
7. **Inguru**: más o menos; *plus o moins*
8. **Aurtengo**: de este año; *cette année*
9. **Lekuko**: testigo; *témoin*
10. **Zurezko**: de madera; *en bois*
11. **Bakoitz**: cada; *chaque, chacun, -e*
12. **Erakunde**: organización; *organisation*
13. **Lelo**: lema; *slogan*
14. **Omendu**: homenajear; *rendre hommage*
15. **Jaso**: recibir; *recevoir*
16. **Antzeko**: parecido, -a; *pareil, -eille*
17. **Gutxitu**: minorizado, -a; *minorise, -sée*
18. **Milurteko**: milenio; *millénaire*

## KORRIKA laguntzaileak nire bizitza aldatu du

(1) Lanpostu guztiak; (2) lagunek; (3) zorterik; (4) leihotik; (5) guztiak; (6) lanak; (7) perretxikoak; (8) zuk; (9) martxokoa; (10) Paradisua.